

MU GI KOR TA SUNA

2016-2017



MUGI HADI, BAINA IRAUNKORKKI!

Jada 9. urtea dugu Lezoko ikastetxeetan Eskolako Agenda 21 programa abiatu genuenetik.

2016/2017 ikasturtean **Mugikortasun Iraunkorraren** gaia landu dugu 800 bat ikaslek, baina lanketa horretan ez gara bakarrik egon: irakasleen, gurasoen, ikastetxeetako gainerako langileen eta Udalaren laguntza izan dugu. Horregatik, **mila esker guztioi!**

Este 9º año de Agenda 21 Escolar, los centros escolares de Lezo **hemos tratado la Movilidad Sostenible**. Para ello, alrededor de 800 escolares hemos contado con el apoyo de toda la comunidad escolar **¡muchas gracias!**



AURKIBIDEA

- 03 - Nolakoa izan da parte-hartzea?
- 04 - Zer egin dugu ikasturtean zehar?
- 10 - Herriko diagnosiaren ondorioak
- 14 - Ikastetxetako konpromisoak
- 16 - Zer proposatzen diogu Udalari
- 18 - Eta datorren ikasturtean, zer?

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: IZADI 21


NOLAKOA

IZANDA

PARTE-HARTZEA?

Ekainaren 6an ospatutako Eskolarteko Foroan Lezoko Eskolako Agenda 21en zati garen eragileon partaidetza nolakoa izan den aztertu genuen: Ikasleon, gurasoen eta irakasle ez diren ikastetxeetako langileen parte-hartzea egokia izan dela adostu dugu. Irakasleak eta Udala, berriz, bide zuzenean ari dira, baina oraindik pixka bat hobetu dezakete beraien partaidetza Eskolako Agenda 21en gain.

En el Foro Interescolar celebrado el 6 de junio evaluamos la calidad de la participación en la Agenda 21 Escolar y, en general, podemos decir que la participación del alumnado, familiares y personal no docente es buena, mientras que la del profesorado y el Ayuntamiento, aunque van en buen camino, es algo mejorable.



IKASLEAK



IRAKASLEAK



ESKOLAKO LANGILEAK



GURASOAK



UDALA


ZER EGIN DUGU IKASTURTEAN ZE HAR?



LEZO HERRI-ESKOLA:

- Gure egunerokoan txertatuak ditugu hainbat jarduera eta ohitura: hondakinen murrizketa, sailkapena eta birziklapena; ohitura osasungarriak (hamaiketakoa, ...); gure inguruko naturaren ezagutzari eta errespetuari dagozkionak, etab.
- Lezoko garraio-motak, mugitzeko ditugun ohiturak eta hauek dituzten ondorioak landu ditugu maila ezberdinetan.
- Indar berezia jarri dugu oinezko eta bizikleten mugikortasuna aztertzen, izan ere, gehienak oinez joaten baikara eskolara. Horretarako, kalera atera, herria behatu, datuak jaso, aztertu eta ondorioak atera ditugu.






- Gure ikuspegiar harantzago joanez, adinakoekin tokian jarri gara eta Elkartu taldearekin ere saioak egin ditugu, itsuek eta gurgildun aulkian doazen pertsonek mugitzeko garaian dituzten zailtasunak ezagutzeko.
- Bizikidetza eta mugikortasuna uztartzeko Tipi-topa taldearekin izan gara eta gida lanak burutu ditugu beraientzako. Denok gustura ibili ginenez, eskolako ordezkari batzuk Udal-foroan ginen bitartean, gure ikaskideak herriko landare eta belarrak ezagutzeko 2. Tipi-topan izan dira.
- Bizikletan ere ibili gara herrian barrena, adi, seinaleak eta oinezkoak errespetatuz. Horretarako, bizikleta konpontzeko eta hirian nola ibiltzen jakiteko tailerrak egin ditugu.
- Jaizkibelgo urmaela eta Xoxolurra ezagutzeko txangoa ere egin dugu.

LEZO INSTITUTUA:

- 1. mailakook KontsumoBide tailerretan parte hartu dugu Donostian, besteak beste, garraio publikoen antolaketaz eta erabileraz mintzatuz.
- “Norabide guztiak / Cambio de sentido” antzezlana antolatu dugu 3. eta 4. mailako ikasleentzat.
- Herria aztertu dugu, batez ere, emakumeentzako arriskutsuak izan daitezkeen puntuak identifikatuz. Horrekin mapa bat osatu dugu.
- Gainerako ikastetxeekin batera, herriko irisgarritasun arazo edo gabeziak identifikatu ditugu eta mapa batean islatu.
- Elkartu elkarterekin gurpildun aulkietan dabiltzan pertsonen errealitatea ezagutu dugu.





- Kirola edo/ala jarduera fisikoaren aldeko jarrerak bultzatu asmoz, 1. mailako ikasleak Arditurrira txangoa egin dugu bizikletaz, gorputz hezkuntza eta Natura mintegiak elkartuz.
- Kutxa-espazio museora, Astigarragako araztegiara eta LUBERRI geologia museora irteerak ere egin ditugu.
- 2. mailan Donostiako Aquariumeko teknikariekina Biodibertsitatea Itsaso-etan gaia gela landu dugu.



PASAIA-LEZO LIZEOA:

- Haur-hezkuntzako ikasleok garraio mota ezberdinak ikusi ditugu: hegazkina, itsasontziak, autobusak, ... Horretaz gain, oportetan erabili ditugun garraioak aztertu ditugu, beti ere oinez ibiltzearen garrantzia azpimarratuz.
- Lehen-hezkuntzan Ikastola barruko mugikortasunaren ikerketa egin dugu, autobus geltokitik gelara iritsi arteko bidea aztertuz. Landaredia lantzen ari ginela aprobetxatuz, Olatzar-Lorbide ibilbidea ere egin dugu.
- Irristaketa saioak egin ditugu eta, elikadurak bai kirola bai osasunarekin duen erlazioa ulertzen dugunez, ikasturtean zehar "Frutaren eguna" ospatzen dugu astero.
- Bide-hezkuntzako "Ibil hadi adi-adi" agendak banatu eta bertan jasotako irudiak behatu ditugu. Horrekin batera, barruti bakoitzera egin ditugun bisiten aurretik bide-hezkuntzako arauak errepasatu ditugu. Herrian ditugun arriskuak identifikatzeaz gain, Udaltzainen zeregina ere ezagutu dugu.
- Gure mugikortasun-ohiturak ezagutzeko galdetegi bat osatu dugu eta emaitzak Txoko berdean kokatu ditugu. Gainera, irteerak oinez edo garraio publiko ezberdinak erabiliz egin ditugu.
- Eguneroko autobusetako joan-etorrien azterketa egin dugu eta bertan bete beharreko araudia landu.





- Eskola kirolek larunbateko partidetara txirindaz joatera animatu gaituzte eta, joaten ginenei, urarentzat bidoitxo bana eman digute opari.
- Ibilaldi ezberdinak egin ditugu oinez Jaizkibelen eta baita Lezo-Donibane artean. Horrekin batera, bidegorrien erabilera aztertu dugu berauek erabiltzeko.
- Bigarren hezkuntzakoek Mindara elkartearekin saio ezberdinak egin dituzte ezinduek (itsuek, gurpildun aulkietan daudenak, ...) mugitzeko dituzten oztopoak ezagutzeko.



Durante el curso escolar hemos llevado a cabo un montón de acciones: salidas para analizar la accesibilidad en el municipio, conocer cómo es la movilidad de los discapacitados físicos, identificar los puntos peligrosos de Lezo, analizar nuestros hábitos de movilidad, aprender a cómo arreglar una bicicleta, etc.

HERRIKO DIAGNOSIAREN ONDORIOAK

Lezoko irisgarritasuna nolakoa den ezagutu eta herriko puntu ilunak identifikatu asmoz, kale-ikerketa sakona egin dugu. Emaitzak bi planotan irudikatu ditugu:



IRISGARRITASUN ARAZOAK



IKASLEEK ANTZEMANDAKO ARRISKUAK



ARRISKU MOTAK


- 1-ARGIRIK GABEKO GUNEA
- 2-GUNE ISOLATUA
- 3-GUTXI ERABILITAKO BIDEA

- 4-LURPEKOPASABIDEA
- 5-IRTEERARIK GABEKO GUNEA
- 6-ZARATA ASKOKO EREMUA

- 7-IGOGAILUA
- 8-DROGA EDO/ETA ALKOHOL KONTSUMO PUNTUA
- 9-SEXU JAZARPENAREKIKO BELDURRA

- 10-BELDURRA EMATEN DUEN ZARATA
- 11-LAPURRETA JASATEAREN BELDURRA

PUNTU ILUNAK



IKASLEEK ANTZEMANDAKO PUNTU ILUNAK



OARSOALDEKO PUNTU ILUNEN DIAGNOSTIKO PARTE-HARTZAILEAN ETA IKASLEEN AZTERLANEAN BAT DATOZEN PUNTUAK



ARRISKU MOTAK

- 1-ARGIRIK GABEKO GUNEA
- 2-GUNE ISOLATUA
- 3-GUTXI ERABILITAKO BIDEA

- 4-LURPEKOPASABIDEA
- 5-IRTEERARIK GABEKO GUNEA
- 6-ZARATA ASKOKO EREMUA

- 7-IGOGAILUA
- 8-DROGA EDO/ETA ALKOHOL KONTSUMO PUNTUA
- 9-SEXU JAZARPENAREKIKO BELDURRA

- 10-BELDURRA EMATEN DUEN ZARATA
- 11-LAPURRETA JASATEAREN BELDURRA

HAUEK DIRA LEZOKO IKASTETXEEK HARTUTAKO KONPROMISOAK:

1 Oinezkoak dauden gunetan bizikletaz bagoaz oinezkoak errespetatuko ditugu, abiadura motelduz eta, beharrezkoa balitz, bizikletatik jaitsiz.

2 Hurrengo ikasturteetan, bidehezkuntza saioetan ikasten duguna praktikan jarriko dugu.

3 Bizikletaz goazenean kaskoa jantzita joango gara eta abiadura-mugak zainduko ditugu.

4 Egiten ditugun ibilbideetan arduraz jokatuko dugu eta arauak errespetatuko ditugu (seinaleak, zebrabideak, semaforoak, ...).

5 Mugikortasun iraunkorraren inguruan Udalak edo ikastetxeak antolatzen dituen ekimenetan, modu aktiboan hartuko dugu parte.

6 Pertsona guztien mugikortasuna errazteko asmoz, gure ikastetxean beharrezkoak diren hobekuntzak egiten jarraituko dugu.

LEHEN AIPATU BEZALA, GURE MUGIKORTASUN-OHITURAK AZTERTU DITUGU ETA BAITA GURE IKASTETXEA IRISGARRITASUN ALDETIK EGOKIA DEN. ATERATAKO ONDORIOAK IKUSITA, ZERTAN HOBETU BADUGULA IKUSI DUGU ETA, HORRENBESTEZ, GUK, LEZOKO IKASLEOK, HONAKO KONPROMISOAK HARTZEN DITUGU:

7 Ikasleen eta irakasleen artean ikastetxera oinez, bizikletaz edo patinetean joatea sustatuko dugu, horretarako beharrezko azpiegiturak jarriz edo daudenak hobetuz.

8 Eguneroko joan-etorriak, motzak badira oinez, bizikletan edo patinean egingo ditugu. Luzeak badira berriz, garraio-publikoa erabiliko dugu.

9 Gurasoekin autoa modu arrazionalen erabiliko dugu eta, ahal dela, senide edo lagunekin partekatu.

A lo largo de este curso hemos analizado nuestros hábitos de movilidad y la realidad municipal en cuanto a accesibilidad y peligrosidad, tras lo cual, hemos adquirido varios compromisos: cuando vayamos en bicicleta llevar casco, respetar la velocidad así como a los y las peatones; participar en las campañas de fomento de la movilidad sostenible; etc.

ZER PROPOSATZEN DIOGU UDALARI?



Herriko diagnosis landu eta bertako emaitzak oinarritzat hartuz, hauek dira Udalari zuzentzen dizkiogun proposamenak:

Lezoko puntu ilunen mapan jasotzen diren arrisku-guneak ezabatzen joateko neurriak hartzea.

Epe motzera, Lezoko irisgarritasun arazoan mapan jaso ditugun gabezia edo hutsuneak konpontzea.



Lezo-Errenteria eta Lezo-Donibane loturak oinez zein bizikletaz modu seguruan egiteko azpiegitura eta seinaleztapena ezartzea, eskumena duten gainerako administrazio eta erakundeekin akordioak lortuz.





Eskolara oinez edo bizikletan modu erraz eta seguruan iristeko bidea finkatzea, oztopo arkitektonikoak ere ezabatuz.




Mugikortasun iraunkorra sustatzeko kanpainak burutzea, bai ikastetxeetan zein herri mailan.



Auto, kamioi eta motorrei zebrabidetan edo espaloiak okupatuz aparkatzea galarazteko neurriak ezartzea.




Zebrabideen alboetan trafikoa ikustea eragozten duten objektuen kokapena debekatzea (hondakinak biltzeko edukiontziak, kamioiak, ...)



Udaltzaingoak, ikastetxeetako irakasleekin antolatu eta koordinatuz, bide-hezkuntza eman dezan beharrezko baliabideak jartzea.



Aldundiari Jaizkibel hiribidean kokaturiko bidegorria hobetzeko neurriak jartzea eskatzea, oinezkoekin zein autoekin bizikidetzatza bermatzeko, edo bestela, berau tokiz mugitzea.



Espaloiak eta oinezkoen guneak egoera onean mantentzea (kroskak eta bestelako oztopoak ezabatzea, estuegiak diren espaloiak zabaltzea, ...)



Ikastetxe sarrera eta irteera garaian, Jaizkibel hiribidea gurtzatzeko Udaltzaingoaren laguntzarekin jarraitzea.



Herrian modu seguruan mugitzeko aukera bermatzea, adin, genero eta baldintza fisikoak edozein direla ere.



Jende askok erabiltzen duen orduetan, E1 eta E3 autobus zerbitzuak indartzea, eta gaueko autobus zerbitzua berreskuratzea.

ETA HURRENGO IKASTURTEAN, **ZER?**

2017-2018

2017/2018 IKASTURTEAN ZARATA IZANGO DUGU ARDATZ LEZON, ESKOLAKO AGENDA 21EN PARTE HARTZEN DUTEN OARSOALDEKO GAINERAKO IKASTETXEEKIN BATERA. MUGIKORTASUNA ERE EZ DUGU AHAZTUKO, IZAN ERE, **ZARATA**REKIN LOTURA ZUZENA BAITU. GAINERA, DATORREN IKASTURTEA BEREZIA IZANGO DA, 10. URTEA BETEKO BAITUGU ESKOLAKO AGENDA 21 PROGRAMAN.

EL PRÓXIMO CURSO ESCOLAR TRATAREMOS EL **RUIDO**, JUNTO CON EL RESTO DE ESCUELAS DE OARSOALDEA ADHERIDAS A LA A21E. ADEMÁS, EL PRÓXIMO CURSO SERÁ ESPECIAL, YA QUE CUMPLIREMOS 10 AÑOS DESDE QUE INICIAMOS LA AGENDA 21 ESCOLAR.